

# UNTZIGINTZAREN HISTORIA (I)

INAKI AZKUNE

Nabigazioaren historian, hiru aro nagusi bereiz daitezke nagusiki. Lehen aroa, iparrorratzik gabeko nabigazioa dugu. Bigarrena, iparrorratzaren laguntzaz egindakoa. Eta hirugarrena, motorezko propulzioaren bidez egindakoa.

Lehen itsasuntzietatik XVIII. mendeko goletetaraino egitura eta armaduratan aldaketa handiak badaude ere, denboran zehar oso nekez eta bakan gertatu dira orohar lehen bi aroetan.

Mendeak igaro ahala itsasuntzia sendoagoa, erosoagoa eta azkarragoa bilakatu zen. Baina iparrotzaren bidez orientatzen hasi ziren arte, nabigatzea ekintza guztiz ausarta zen. Iparrorratzaren aroan ere, behar zen ausardiarik itsaso zabalean ur handitan zehar ibiltzeko. Hala ere, orientagailua izateak segurtasun-maila ezartzen zion bidaiari.

---

▲ *Gaur egun aurrerapenei esker, itsasoan zehar nabigatzea ez da garai batean bezain arriskutsua.*

---

Hirugarren aroa da (motorezko propulzioaz baliatutakoa) inola ere garrantzitsuena. XIX. mendearen hasieraz gero, nabigazioa erabat eraldatu da. Sena ibaian lurrin-makinaz hornitutako lehen untzi haietatik transatlantiko indartu eta bikainak itsasoratu arte chun urte besterik ez ziren igaro, eta tarte horretan gauza ugari aldatu zen; kaskoaren egitura, nabigatzeko teknika, propulzioa etab.

Nabigazioa erabat erraztu da XX. mendean eta horrek hein batean gizadiaren bizimodua aldatu egin du. Garraioa asko merkeagotu, bizkortu


eta segurtatu da mende honetan, merkatal harremanen mesedetan. Munduan bi gerrate nagusi ere izan dira mende honetan ordea. Lehen gerratean batipat lehorreko komunikazioak eta aboigintza aurreratu baziren ere, bigarrenean nabigazioak bultzada handia hartu zuen. Ozeanotan berebiziko borrokak gertatu ziren itsasuntzi indartsu eta sofistikatuen artean.

Gerra amaitu zenean, gerrauntzietako radarra eta makina elektronikokoak merkatal untzietan erabiltzen hasi ziren. Hiroshima eta Nagasaki deuseztatzeko erabili zuten energia nuklearrak ere, urpekuntzi iparrameriketar bati eragingo zion hamar urte geroago. Propulsio nuklearrak untzien ahalmena, autonomia eta abiadura

asko hazi zituen, eta urpekuntzi atomikoen ondotik, azaleko untzietara igaro zen.

Gaur egun aurrerapenei esker, itsasoan zehar nabigatzea ez da garai batean bezain arriskutsua, noski. Baina gaurko egoerara iristeko, norbaitek asmatu behar izan zituen arraunak, lemak, belak etab.

Beraz, nabigazioaren garapenari hasierako gainbegirada arin hau eman ondoren, has gaitzen antzinako lehen untzien berri ematen. Ez dakigu zuhaitz-enberrari txalupa-forma eman ziona zein izan zen; Euskal Herrian erabiltzen omen zituzten erromatarren garaian, 'orduko geografio eta historialariek diotenez. Ez dakigu arrauna zeinek asmatu zuen:



Senakerib errege asiriarraren gerrauntzia. Bi arraun-ilada ditu eta goiko zubian gerragizonak daude. (700 K.a.).

nahiz eta asmakuntza gurpilarena bezain garrantzitsua izan. Ez dakigu lema zeinek asmatu zuen. Ezta masta baten bela zabaldua haize-indarrak lehendabizi zein baliatu zen ere.

Dena dela, Bibliak dienez Noeren untxiari esker salbatu zen gizadia eta harrez gero Mesopotamian izandako beste untxi batzuren berri gehiago badago. Eufrates eta Tigris ibaietan, *gufa* izeneko untxia zuten. Otxare handi baten forma zuen, eta gaur egun ere erabiltzen dute untxi-mota hau, arrantzarako batipat.

Geroztik aurkitu izan diren eskultura batzuren arabera gainera, asiriarrak bazuten flota indartsu Kristo baino zortzirehun bat urte lehenago. Asiriarrak eta babailoniarrek, ez zuten lehenarik beren untxiak erabiltzeko. Horregatik joan ziren beren armadak Armenia edo Asiara. zura itsasoraino ekartzearren. Niniveh eta Babylonia-n untxiolak zituzten, eta itsasuntzietan pilotu feniziar edo egiptoarrak ipintzen zituzten buru.

Era desberdinetako untxiak egiten zituzten ordea. Untxi-mota bat, biribila zen; bi arraun handiz hornitua; branka eta popa berdinekoa, bidaiaren norantza berehala aldatzeko modukoa. Beste untxi-mota bat, gerrarakoa zen. Brakaren azpian ziri-formako muturra zuen. Popa berriz, kurbatua zuen tropak zeuden zubiraino. Kargen garraiaorako, bazuten beste untxi bat. Kaldearrek ihiz eta larruz egiten zuten, baina asiriarrak ohol eta zahagiz. Zahagiak ai-

rez beteta oholei lotzen zizkien lokarriz. Untxi hauek karga astunak garraia zitzaketen. Untxi, ola, portu eta abar ondo babestuak zituzten legeen bidez, K.a. 2.000 urteko Hamurabi-ren arategiak garbi erakusten duenez.

Baina Kaldear eta asiriarren ondoren, feniziarrek izan ziren itsasaren jabe. Feniziarrek, itsasgizon eta merkatari ziren batez ere. Horregatik, berak joan ohi ziren itsasoan zehar bezeroen bila. Itsasuntziak oso gogozkoak zituzten. Izan ere beste inork baino ederragoak egiten zituzten: biribilduak, saihsalde altukoak, karga handiak garriatzeko modukoak. Kaskoa Libanoko zedroz egina zen eta gila brankan gora luzatzen zen zaldiburu-formako irudi batez errematatuz.

Bi eratako untxiak zituzten: galeoiak eta galerak. Galeoia astuna eta handia zen. Galera berriz arin eta bizkorragoa. Galeoiak, liho egiptiarrezko bela karratu handiak zituen. Galerak ordea, belaz gainera bi iladatan lerrokatutako arraunak zituen. Galerak arinagoak zirenez, aproposak geratu zitzaizkien ibaitan gora eta sakonera txikiko itsasertzetan nabigatzeko.

Feniziarrek bestetik, iaioak ziren matematika- eta geometri arazotan. Astronomian oinarrituta nabigatzen bazekiten. Beraiei zor zaie hain zuzen Hertz Nagusiko izarrei begiratuta itsasoan orientatzeko artea. Haiek irakatsi zieten teknika hau Mediterranio itsasinguruko gainontzeko herriei. Mareen gorabeherak ere ongi ezagutzen zituzten. ◀